

Iragarrita zegoen eraso

Euskaldunon Egunkaria, 1991-07-28: 3.

Egunkaria prestatzen hasi ginenetik jakina zen oztopoak izango genituela; batez ere ekonomikoa, noski, baina baita laster agertu zen beste bat ere: euskal egunkarian "MVLNek izan zezakeen hegemonia" apuntatzen zuen norbaitek artikulu batean (1990go abuztuak 14); bost egun gero neronek erantzun nion *Deian* bertan euskararen egitasmo berri honen kritikan agertzen ziren prejuizioak aipatzen, eta geure helburua euskara zenez gero aurreritzi hau uxatu nahian prejuizio hori zutenen partaidetza eskatuz, hasieratik lanak elkarrekin zuzen egiten saia gintezen.

Gero, lanean ari ginela, eta Euskaldunen EGUNKARIA 1990 bertako abenduan kalera irten eta gero ere bai, berriz, eskaini genion partaidetza Jaurlaritzako Kultur Sailari.

Ez dugu oraindik erantzunik jaso.

Gauzak honela, 1991go uztailak 10 zituela, EGUNKARIA bere 184. alean, Joseba Arregi jaunak prentsurre bat eskaini zuen ordurarte Kultur Saileko egunkariaren arduraduna, J.R. Beloki, Gipuzkoako Diputazioan beste kargu bat hartzeko egitasmo honetatik kanpora geratzen zela adierazteko; eta gertaldi honetan Beloki jaunak izan zuen aukera iragarpen baten antzera hau esateko, "tentazio baten berri emango dizuet... Ez dakit zer egingo dedan, baina igual bidaliko diet dokumentu fotokopiatu bat nere tarjetarekin"... Hau kazetari jakinminduen aurrean aidean geratu zen. Gauzak honela, egun bereko arratsean neronek entzun nuen etxean ETBren gaueko berri zerbitzuaren erdarazko emanaldian, azken berri bezala, hauxe: "EUSKALDUNON EGUNKARIAren zuzendariaren izendapena ETako buruzagien oneritiz egin omen zela ulertu daiteke, Frantzian atxilotutako ETArrei harrapatutako dokumentazioan".

Eta besterik gabe amaitu ziren berriak.

Ni neu aho zabalik geratu nintzen. Kezkatuta, noski, "oneritzia", "omen zela" eta "ulertu daiteke", kondizio askotako esaldia zen; baina entzundakoa buruan bueltaka hasi nintzenean konturatu nintzen ez nintzela gogoratzen fermuki nola esana izan zen. Ez nion inori deitu hurrengo egunarte, eta Joxemiel Zumalaberi entzundakoa nolabait pasa nionean, ez nintzen ausartzen nire hitzak baieztatzea. Hasi ginen galdezka, eta pertsona gutxik entzun zuen hau, euskaraz eta erdaraz, emana izan bazen ere. Eta neuk eskatu nion, EGUNKARIAko zuzendaria den Pello Zubiriari zintaren grabazioa eska zezala. ETBek eman zizkigun biak; euskarazkotik jaso ditut hitzez-hitz idatzi berri dudana.

Geroztik, uztailaren 24ean, Santio bezperan, argitaratu zuen Barcelonako *El Periódico* egunkariak, bere Politika orrialdean titulo honen azpian: "ETA controló la salida de un diario", eta honen azpian, lehengo "omen" guztiak ezabaturik orain, amarillismo mafioso batean gauzak poliziak nahi bezala gertatu baitiran. Eta hurrengo egunean, 25an, *Navarra Hoyen*, erantzupidearen izpi bat ere gabe Cataluniakoari kopiatuz: "ETA controló la salida del periódico EGUNKARIA".

Hara nola gertatu diren gauzak. Beste egunkarietara ere "filtratuko" zuen hortarako gai izan zenak material bera, baina ez dira hain errazki lohian sartu.

Zer esan genezake gezur honen erabilera honetaz?

Nik, neure aldetik, hau: Zuzendari bila emandako pauso guzti horietan egon naizela; banan bana zuzendaritzarako eskaintzak egiten jardun genuela asteak zehar, eta ez zuela inork hartu; ba, denak profesionalak izanik, bakoitza bere lanetan zebilelako, bat, eta, bi, baliteke Egunkari euskaldunak eskaintzen zien iraupenaren garantia handiegia ez zelako. Euskararen bideak denak baitira ahulak eta arriskugarriak. Bi arazo hauek normalak izan ziren, eta ez zen honetaz ETako norbait bakarrik enteratuko, beste talde politikoak ere bai, noski, ez genuen eta hainbeste jende ikuitzerakoan diskrezio gehiago izaterik izan. Geure herriko alderdiek denek jakin zuten zertan gabiltzan, eta Kultura Saileko egunkariaren arduradun zirenak ere bai, eta besteak. Hauek bere garaian jakin zutena. Eta orain polizia espainoleko "filtrazio" honek diona zer da? Hori bera, kanpotik norbaitek jaso zuena. ETak honelako informazioa behar bazuen, barruan ez egotearen seinale garbia da. Diruz ere ez ginen ibili ginen eta gabiltzan bezala ibiliko.

Baina nork jarri du martxan poliziak jasotako eta gero gezur txarrera joan den informazio soil hau?